

Funtsezko Baliabideak

Aplikazioa mantentzeko beharrezko serbidore propioak ditugu, baita ordenagailu indartsuak ere, programazioa eta adimen artifizialaren entrenamendua modu egokian egiteko. Horrez gain, lantoki bat errentatuta daukagu gure jarduera profesionala garatzeko.

Gure langileek programazioan esperientzia handia dute, titulazioa eskuratu dute eta hainbat hizkuntza informatiko menperatzen dituzte. Azkenik, epe luzerako mailegu bat lortu dugu aplikazioa garatu eta finantzatzeko gure enpresa errentagarria bihurtu arte.

